

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2611

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2013ko maiatzaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014 ikasturterako Hobekuntza gauzatzen ari diren Ikertzaile Doktoreentzako doktoretza-ondoko Programarako laguntzak berritzea eta beka berriak ematea arautu eta horietarako dei egiten duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Modu horretako hutsak atzeman dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Ikerketako sailburuaren 2013ko maiatzaren 7koa Aginduan (2013ko maiatzaren 20ko EHAA, 95. alea). Agindu horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014 ikasturterako Hobekuntza gauzatzen ari diren Ikertzaile Doktoreentzako doktoretza-ondoko Programarako laguntzak berritzea eta beka berriak ematea arautu eta horietarako dei egiten da. Eta jarraian zuzendu egiten dira hutsok:

2013/2333 (28/3) orrialdean, 5.1 artikuluan,

Honela dio:

«Ikerbasque fundazioak hitzarmenak sinatuko ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente egiaztatuekin, bai eta EAEn egoitza duten unibertsitate publiko eta pribatuekin ere, kontratuko hirugarren urtean dauden ikertzaile doktoreak hartzeko».

Baina honela esan behar du:

«Ikerbasque Fundazioak hitzarmenak izenpetu beharko ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileekin. Horiek Oinarrizko Ikerketako eta Bikaintasuneko Zentroen (BERC programa) kategorian sartzen dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2008ko abenduaren 10ean eman zuen aginduaren edo horren ordezkoko aginduaren arabera. Bestalde, Ikerbasque Fundazioak hitzarmenak izenpetu beharko ditu, baita ere, EAEn egoitza duten unibertsitate publikoekin edo pribatuekin, ikertzaile-doktoreak horietara joan daitezzen kontratuko hirugarren urtean».